

ANIMALIEN BABESERAKO V. EUSKAL JARDUNALDIAK




Argazkia: Luis Presa

BILBAO, 19 | 20 | 21 | 2012ko azaroa
Bidebarrieta Liburutegia (Alde Zaharra)
19:30ean

Antolatzailea

Babeslea

Laguntzailea



Animalien Babeserako V. Euskal Jardunaldiak –5. edizioan, hauxe berez aipatzekoa– animailei eragiten diegun tratuari dagokionez transizio ideologikoaren une interesgarri batean datozkigu. Gutxienez, orain arte gure gizarteak arazorik gabe onartzen zituen errealitate batzuk gaur zalantzan jartzen hasi den zentzuan. Balegoke adibiderik argiena animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunetan, hauetako askori munduko zenbait lekutan –Euskadin ere bai– oztopoak ipintzen ari zaizkiolarik. Betidaniko zirkuek, kasu, komunitate politikorik aurreratuenetan jasotzen dituzte kritikak. Espiritu berri hau jasota, hiri ugarik debekatu egin dituzte zikuetako basa animalien presentzia, besteak beste, arrazoi ekologiko zein moralengatik. Hau dela eta, LEHEN SAIOAn zehar beronen inguruko debate tematikoari ekingo diogu.

BIGARREN SAIOAk programa erakargarria dakarkigu, legedia protagonista bihurtuz, hauxe baita oinarrizko ardatza animalien ongizatea eta beraien eskubideei buruz eztabaidatzen dugunean.

HIRUGARREN SAIOAren eskutik geure kulturaren oso errotuta dagoen baina aldi berean eztabaidagarria den gaietako bat dator: animalien kontsumoa. Egun, askoz haragi gutxiago jatera gonbidatzen gaituzten motibo asko omen dira: ingurugiroarekin lotuta daudenak (atmosferaaren kutxadura, beroketa globala, ura xahutzea) ez ezik, *Hirugarren Munduarekiko* elkartasuna, eta –zeresanik ez– etikoak ere.

ADBE elkarteak AUKERA ASKEKO KREDITU bat emango dio *Animalien Babeserako V. Euskal Jardunaldi* hauetara datozen EHUko ikasle orori, zeinek, bere presentziaz gain, lan erraza aurkeztu beharko du, bertan iritzi pertsonala eta entzundakoa azaltzen dituelarik.

ZIRKUA: BILAKAERA ETIKOA

JUAN RAMÓN PUY

Leongo Unibertsitateko Albaitaritza ikasketak egin zituen, *Animali Ekoizpenean* espezializatua. Eusko Jaurlaritzako *Osasun Sailean* elikadura kontrol eta ikuskapen lanak egiteaz gain, Euskadiko zenbait hiltegitan zein animalia txikien kliniketan ere aritu da. 1985. urteaz geroztik Eusko Jaurlaritzako *Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzan* dihardu, bertan lan ezberdinak eginez, besteak beste genetika, desagertzeko arriskupeko arrazen zaintzea edota animaliez baliatzen diren zirkuak gainbegiratzea.

JENNIFER BERENGUERAS

Ingurumen Zientzietan lizenziatua (espezieen kontserbazioan espezializatua). Duela hamabi urtetik era profesionalean egiten du lana animalien babeserako arloan. *Fundación para la Adopción, Apadrinamiento y Defensa de los Animales (FAADA)* erakundearen kanpainen koordinatzailea, bereziki erakusketa moduan eta aisialdirako animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunei kritikak agertuz. Era berean, *Infocircos* koalizioaren kide dugu, zeinen helbururik nagusia administrazio publikoei zirkuetako basa animalien egoerari buruzko informazioa ematea baita.



ANIMALIEKIKO TRATU TXARRAK ETA LEGEDIA

MARÍA GONZÁLEZ

Abokatua. *Ingurugiroaren Zuzenbidean* masterra. *Animaliak, Zuzenbidea eta Gizartean* graduondokoa. Azken hamarkadan zehar ingurugiro eta gizarte garapenarekin lotutako zenbait proiektutan ihardun du enpresa pribatu zein administrazioetan, aholkulari juridiko gisa. *Animalex, Animalien Zuzenbidean* espezializatua den Euskadiko lehen bulego juridikoaren bultzatzailea du, une honetan esparru berri honetarako ardura eksklusiboa duelarik.

MARTA LEZAOLA

Zuzenbidean lizenziatua. Egun prokuradore egiten du lana. Baita abokatu lanean aritu da ere, eta *Praktika Juridikorako Eskolan* ikasketak egin ditu. Albaitari languntzaile teknikoa izanik, *Bizkaiko Fauna Basatia Errekuperatzeko Zentroarekin* kolaboratu du. Urtetan animalien babeserako zenbait erakundetan aholkularia izan da, eta esperientzia luzea du kale katuen taldeen kudeaketa proiektuetan. Une honetan *Animalex* bulego juridikoaren kide da.



HARAGIAREN INGURUKO DILEMA

NAIA NEBRA

*Kazetaritza ikasketak egin zituen EHUUn. Gaur egun *Factor CO₂, Klima Aldaketan* espezializatutako euskal aholkularitzaren komunikabide arduraduna dugu, esparru honetan sentsibilizazio proiektu ugari egin dituelarik, erakunde pribatu zein publikoetan. Bilbaoko Udaleko *Klima Aldaketaren Aurkako Bulegoaren* komunikabide arduraduna. Baita *Stop CO₂ Euskadi* ekimenarena ere.*

MATILDE FIGUEROA

Hamabi urte daramatza animalien defentsarako arloan, batez ere *Fundación Altarriban*, 2010 eta 2012 bitarteko epean zuzendu zuena. Gizartea koizientzatzeko zenbait kanpaina garatzeaz gain, naziorarteko mailako ekitaldi garrantzitsuak kudeatu ditu. Era berean, Marc Bekoff eta Tom Regan idazle animalista ezagunen liburuak gaztelanietze lanetan ihardun du.

